

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN****77/2020 TXOSTENA**

**Gaia:** Bermeoko Udalaren kudeaketa materialerako gomendioa polizia eta larrialdietako euskal akademiari, euskal poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa- prozesu bateratuak kudeatzeko.

**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.c artikulua

**Aurrekariak**

**Lehena.-** 2020ko azaroaren 26an Langileria saileko teknikariak "Bermeoko Udalaren kudeaketa materialerako gomendioa polizia eta larrialdietako euskal akademiari, euskal poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa- prozesu bateratuak kudeatzeko" erabaki proposamena eta hitzarmenaren zirriborroa egin ditu.

**Bigarrena.-** Bihar, 2020ko azaroaren 27an, ohiko osoko bilkura da; eta, beraz, idazkariak ez du izan legezko epea txostena egin ahal izateko.

**Oinarri juridikoak****Aplikagarria den araudia**

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
- Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa onartzen duena.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudia onartzen duena (ROF).

**Azterketa juridikoa**

Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 26/11/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2020  
21:28:49

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_ERA\_0243  
Data: 26/11/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E40005630200R0V7R9C4O2S0



Bermeoko Udalak 7/1985 legearen 25.2 artikuluko eta 2/2016 legearen 17 artikuluko eskumenak dauzka. Konkretuki konpetentziak dauzka hurrengo gaitetan: "Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea."

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 69.3 artikulua hurrengo xedatzen du: "3. Toki-erakundeek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren gomendio utzi ahal izango dute, akademiak aldeztu aurretik onartzen badu, Udaltzaingoko kidego eta zerbitzuetan sartzeko hautaketa-prozedurak batera egitea, bai eta, hala badagokio, mugikortasun-agente izateko hautaketa-prozedurak ere. Gomendio hori dela eta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak berak egingo ditu hautaketa-prozedura horiek


Kudeaketa gomendia araututa dago 40/2015 legerako 11.artikuluan, zeinek dioen: "*1. La realización de actividades de carácter material o técnico de la competencia de los órganos administrativos o de las Entidades de Derecho Público podrá ser encomendada a otros órganos o Entidades de Derecho Público de la misma o de distinta Administración, siempre que entre sus competencias estén esas actividades, por razones de eficacia o cuando no se posean los medios técnicos idóneos para su desempeño.*

*Las encomiendas de gestión no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos regulados en la legislación de contratos del sector público. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en ésta.*

*2. La encomienda de gestión no supone cesión de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su ejercicio, siendo responsabilidad del órgano o Entidad encomendante dictar cuantos actos o resoluciones de carácter jurídico den soporte o en los que se integre la concreta actividad material objeto de encomienda.*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 <b>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</b>	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E40005630200R0V7R9C4O2S0	<b>Sinadurea eta data</b> JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/11/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2020 21:28:49	<b>EXPEDIENTE ::</b> 2020IDA_ERA_0243 Data: 26/11/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

*En todo caso, la Entidad u órgano encomendado tendrá la condición de encargado del tratamiento de los datos de carácter personal a los que pudiera tener acceso en ejecución de la encomienda de gestión, siéndole de aplicación lo dispuesto en la normativa de protección de datos de carácter personal.*

Kudeaketa gomendioen formalizazioari buruz, 3.b atalak dio:

*Cuando la encomienda de gestión se realice entre órganos y Entidades de Derecho Público de distintas Administraciones se formalizará mediante firma del correspondiente convenio entre ellas, que deberá ser publicado en el «Boletín Oficial del Estado», en el Boletín oficial de la Comunidad Autónoma o en el de la Provincia, según la Administración a que pertenezca el órgano encomendante, salvo en el supuesto de la gestión ordinaria de los servicios de las Comunidades Autónomas por las Diputaciones Provinciales o en su caso Cabildos o Consejos insulares, que se registrá por la legislación de Régimen Local".*


Izan ere, kudeaketa gomendioa laguntzeko teknika da eta ez du suposatzen titulartasuna, eskumena ezta egikaritzea lagatzea. Gomendioarekin ekintza materialak edo teknikoak burutzen dira. Izan ere, kudeaketa gomendioa baliabide bat da administrazioaren antolakuntza arrazionalizatzeko, baliabide material eta pertsonalen gabezia gainditzeko eta kudeaketa eraginkorragoa lortzeko.

Bermeoko Udalaren kudeaketa materialerako gomendioa polizia eta larrialdietako euskal akademiari, euskal poliziaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa- prozesu bateratuak kudeatzeko hitzarmenaren zirriborroa aztertuta hurrengoa ondorioztatzen da:

- Gomendioaren helburua da Bermeoko Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari agintzea Euskal Poliziaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko 3 lanpostu hautatzeko prozedura gauzatzeko beharrezkoak diren jardura material, tekniko edo zerbitzu-jardura guztiak egiteko.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E40005630200R0V7R9C4O2S0	<b>Sinadurea eta data</b> JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/11/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2020 21:28:49	EXPEDIENTE :: 2020IDA_ERA_0243 Data: 26/11/2020 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Hitzarmen zirriborrotik ondorioztatzen zein onurak organizatibo, ekonomiko edo tekniko egongo den kudeaketa gomendioarekin.
- Kudeaketa gomendioaren helburua ez da Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezartzen den zerbitzua ematea.
- Hitzarmenaren edukia ikusita, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ordainduko ditu kudeaketa gomendiotik sortutako gastuak. Hala ere, etorkizunerako beste gastu batzuk udalak ordaintzeko aurreikusten da.
- Ez da adierazten zein epe izango duen hitzarmenak.

## Prozedura

Prozedurari dagokionez, hurrengo pausuak bete beharko dira:

- Justifikatu beharko da hitzarmenaren beharrizana eta onurak (antolakuntzan, ekonomikoki edo teknikoki).

Langileria teknikariaren 2020ko azaroaren 26ko txostenean justifikatu da.

- Proposamena eta hitzarmen zirriborroa beharko da

Langileria teknikariak 2020ko azaroaren 26an egin du.

- Eragin ekonomikorik badauka, kontuhartzailearen fiskalizazio txostena beharko da.

Ez da justifikatu eragin ekonomikorik badauka.

- Idazkari nagusiaren txostena beharko da
- Informazio Batzordearen irizpena beharko da



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/11/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2020  
21:28:49

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_ERA\_0243  
Data: 26/11/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren  
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal  
dozu.  
Kodea:  
07E40005630200R0V7R9C4O2S0

Ez dago informazio batzordearen irizpena. Beraz, Ohiko osoko bilkuran gaia eztabaidatzeko ROFaren 126. artikulua<sup>1</sup> arabera 2020ko azaroaren 27ko osoko bilkuran gaia landuko bada, aurretiaz premia justifikatu eta bozkatu beharko da gehiengo soilez osoko bilkuran.

Dena den, ohiko osoko bilkurako gai zerrendan ez dagoenez gaia sartuta, ROFaren 83. artikulua<sup>2</sup> arabera aurretiaz gaia gai zerrendan sartzeko gehiengo osoz premia bozkatu beharko da.

- Akordioa Osoko Bilkurak hartu beharko du gehiengo osoz, 7/1985 Legearen 47.2.h artikulua arabera.
- Akordioa hartuta idazkariaren aurrean formalizatu beharko da hitzarmena sinatuz.
- Behin formalizazioa eginda, hitzarmena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

<sup>1</sup> ROFaren 126. Artikulua: *"1. Los dictámenes de las Comisiones informativas tienen carácter preceptivo y no vinculante.*

*2. En supuestos de urgencia, el Pleno o la Comisión de Gobierno, podrá adoptar acuerdos sobre asuntos no dictaminados por la correspondiente Comisión informativa, pero, en estos casos, del acuerdo adoptado deberá darse cuenta a la Comisión informativa en la primera sesión que se celebre. A propuesta de cualquiera de los miembros de la Comisión informativa, el asunto deberá ser incluido en el orden del día del siguiente Pleno con objeto de que éste delibere sobre la urgencia acordada, en ejercicio de sus atribuciones de control y fiscalización."*

<sup>2</sup> ROF 83. artikulua: *"Serán nulos los acuerdos adoptados en sesiones extraordinarias sobre asuntos no comprendidos en su convocatoria, así como los que se adopten en sesiones ordinarias sobre materias no incluidas en el respectivo orden del día, salvo especial y previa declaración de urgencia hecha por el Organo correspondiente, con el voto favorable de la mayoría prevista en el artículo 47.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril."*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/11/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2020  
21:28:49

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_ERA\_0243  
Data: 26/11/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E40005630200R0V7R9C4O2S0



## Ondorioak

Kontuan izan behar da espedientea ez dela osotasunean aurkeztu osoko bilkura baino lehen eta idazkari honek ezin izan duela legezko epean gaia aztertu. Hala ere, proposamenari adostasunari emateko hurrengoak bete beharko lirateke:

- Hitzarmenaren edukia ikusita, ez da adierazten zein epe izango duen.
- Eragin ekonomikorik badauka, kontuhartzailearen fiskalizazio txostena beharko da. Bestela, justifikatu beharko da ez duela izango eragin ekonomikorik.
- Erabaki proposamenean hurrengoak azaltzea komeni da:
  - Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa prozesu bateratuen kudeaketarako Bermeoko Udalaren eta Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiaren arteko kudeaketa materialaren gomendioari buruzko erantsitako hitzarmena sinatzea. (I. eranskina. Hitzarmena)
  - Kudeaketa gomendioak ez du suposatzen eskumenaren titulartasuna lagatzen dela.
  - Kudeaketa gomendia indarrean sartuko da hitzarmena sinatu eta BAO n argitaratuta hurrengo egunean. Indarraldia zehaztu beharko da eta luzapenak jar daitezke.
  - Kudeaketa gomendioaren hitzarmena onartzea eta alkatea ahalbidetzea berorri sinatzeko eta formalizazioari dagozkion bestelako ekintzak burutzeko.
  - Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari jakinaraztea akordioa, gomendia onartzeko.
  - Behin hitzarmena sinatuta, BAO n argitaratzea.

Kontuan izanik kudeaketa gomendioak osoko bilkuraren eskumenekoak direla eta espedientea osatu eta onartzeko epea laburra dela, delegazioa edo antzeko tresnak egikaritzeko aukera baloratzea gomendatzen da.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/11/2020  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2020  
21:28:49

EXPEDIENTE ::  
2020IDA\_ERA\_0243  
Data: 26/11/2020  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E40005630200R0V7R9C4O2S0




Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E40005630200R0V7R9C4O2S0</p>	<p><b>Sinadurea eta data</b></p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/11/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/11/2020 21:28:49</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_ERA_0243</p> <p>Fecha: 26/11/2020</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

